

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA (IGI)

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2023ko azaroaren 16an onartutako 2023-2024 ikasturtean bitartean aldirako Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako berdeguneetan hezkuntza-ekin-tzak egiteko dirulaguntzen deialdiaren ebazpenaren laburpena

BDNS (Identif.): 730251.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artiku-luetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/730251>).

Lehen. Erakunde onuradunak

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek eta bertako familia-elkarteek eskuratu ahal izango dute dirulaguntza:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udale-rrian errolatuta egotea.
- Ikastetxean ikastetxeko berdeguneekin loturiko hezkuntza-proiektu bat abian egotea edo abian jartzea 2023ko irailaren 4tik eta 2024ko ekainaren 21ra bitartean.
- Jarduera horiek burutzeko faktura bidez egiaztatu daitezkeen gastuak egin izana 2023ko irailaren 4tik eta 2024ko ekainaren 21ra bitartean, hezkuntza-proiektuari estu-estu lotuak.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntza-deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko ikastetxeei eta ikastetxe horietako familia-elkartei laguntza ekonomikoa ematea ikastetxeetako berdeguneetan hezkuntza-proiek-tuak martxan jarri ahal izateko 2023-2024 ikasturtean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2023ko azaroaren 16an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 22.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte udal Erregistroan edo udal herritarrei lagun-tzeko bulegoetan 2024ko ekainaren 24 baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 17a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakaria
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO